

## HARAN ATLANTIKOAK

### GIPUZKOA



#### G•14 Haranerreka

**G**ipuzkoako orografia zaila Haranerrekako labirintora iristen da. Kobazulo eta leizez beteriko mendi—mazela malkartsuz inguratuta dagoen harana mehartu horretako hondo estutik Kilimon ibaiara igarotzen da. Inguru horretan denbora gelditu egin dela dirudi, jatorrizko landaredia eta bertako habitata ia ukitu gabe kontserbatzen baitira: gailurretako harkaitzak, mendi—hegaletako artadia, era askotako hostozabalez osatutako baso mistoa haran—hondoko ibarbideetan, haraneko baserri bakanei loturiko landazabalarekin batera.

Ingurune hori hain gutxi aldatuenez, Haranerreka, Izarraitz eta Andutzekin batera, Gipuzkoako eremu interesgarrienetako bat da faunaren aldetik.



#### G•15 Andutz mendia

**A**ndutz mendiaren kareharrizko gailurra nabarmendu egiten da Debako paisaian, eta Deba eta Urola ibaien arroen arteko banalerro geografikoa eratzen du, komunikazio—bide eta azpiegitura garrantzitsuz inguratutik. Andutzeko mendi—hegalak, bereziki ekialdekoak, artadi kantauriar handi batek estaltzen ditu. Hori da, hain zuzen, guneko horretako jatorrizko landaredia eta garrantzitsua da kareharrizko lurra babesteko. Era horretako basoak sasi—barietate handi batekin eta harkaitzetako flora oso bereizgarri batekin lagundurik kontserbatzen dira. Oihanpean baso—fauna aberatsa bizi da: basurdea, ipurtatsa, lepozuria eta azkonarra; eta bertako enklabe heze ugarietan maiz ikus daitezke anfibioak; adibidez, baso—igel gorria eta uhandre marmolairea.

#### G•16 Garate—“Santa Bárbara”

**A**rtelatza Mediterraneoko berezko zuhaitza da, baina harrigarria bada ere, inguru honetan espezie horretako hainbat ale daude, bakarka nahiz pinuz, txakolin—sailez eta zelaiz inguratutako zuhaitzi txikietan

bildurik, Meagatik Garate Gaineraino. Zarauzko Vista Alegre auzoan bertan ere artelatza heldu espontaneo batzuk aurki ditzakegu. Ale horiek bakarrak dira gure autonomia—erkidegoan eta, beraz, klima epelagoko beste garai batzuen lekuko biziak ditugu. Ale horien berezitasuna eta suteen eta kontrolrik gabeko baso—berritzeen ondorioz desagertzeko benetako arriskuan direla—eta, multzo osoa eta bereziki bat babestu dira EAEko Arbola Berezi izendatuz.